



Astigarragako SAGARDO FUNDAZIOAZ

HISTORIA ETA EKIMENEI BEGIRA

Astigarragaz oroitzerakoan edo hitz egiterakoan, berehala sagardoa datorkigu burura. Dudarik gabe hau da gure ondarerik famatuena, baina, zorionez, ez da bakarra. Urumea bailarako herriak, Hernani, Donostia eta Astigarraga, Urnieta eta Usurbilekin batera, nabarmentzen dira sagardoaren kulturen eta lanean. Honekin loturik, Astigarraga inguruetako herrien aldean gainjartzen da. Zerbakiak hor daude, bai sagardotegi kopuruan, bai kultur mailako ekintzetan eta bai oso nabarmen, litro produktioan ere.

Historian, Euskal Herrian zehar, leku gehienetan egin izan da sagardoa, baina Astigarragaren garrantzia duela 30-40 urtetik hona hazi da. Indar hartze hori Gipuzkoako leku gehienetan jaсандako sagardotegien beherakada ikusgarri-arekin batera dator eta Astigarraga bezalako herrietan produktioa mantentzearekin batera. Esan bezala, gure bailaran mantendu dira gehien sagasti, kupelak, etb. Ondorioz, horien inguruko ohiturak ez dira galdu.

Geroztik, kultur ekintza ugari burutu dira eta beste hainbeste bururatu ere bai. Guzti hauek ez direla beste herrietako taldeekin elkarlanean bideratu, alderantziz baizik, bakarka. Ekintza hauetako asko oso ezagunak izan dira eta beste batzuk izaten jarraitzen dute gaur egunean.

Gaur egun Urumea bailaran hauek burutzen dira:

-Hernaniko **TOLARE kofradiak** egiten duen urteroko kofrade izendatzea eta festa.

-Usurbilgo **Sagardoaren lagunak taldeak** burutzen duen sagardoari buruzko monografikoa, tresneri bilketa, erakustaldia, sagardo dastaketa, etab.. Oso ezaguna da eta urtero jende ugari parte hartzen duelarik.

-Donostiako **Sagardo Eguna**, Konstituzio Enparantzan egiten dena.

-Astigarragako **Txotx Berri Festa** asteburu kultural modura burutzen dena, eginkizun ugari bilduz, Santa Ana Eguna, komunikabideetan horren nabarmena den **Sagardotegi boladaren inagurazioa**, pertsonai famatu baten etorrerarekin (Julian Retegi, Arzak, Joane Somarriba,...) eta udaletxean egiten den **urteko sagardoaren aurkezpena**.

- Gipuzkoako hainbat herrietan burutzen diren sagardo dastaketa, lehiaketa, etab. ere ez ditugu ahaztu behar.

Baina hauek ez dira Astigarragan egin diren pausu bakarrak, zehazki beste hauek ere eman dira eta:

- **Euskal Herriko Herritarren arteko Sagardo Lehiaketa**, bere garaian, herritar guztien parte hartze irekiaz egiten zen lehiaketa.

- **Sagardoaren erakusketa**, sagardoaren museoaren aintzindari modura 5 hilabetetan zehar 5.500 pertsonetatik gora inguratu ziren.

- **Sagardo etxearen** inguruan eman diren pausu eta mugimenduak (Ikus ASTIGARRAGA 96ko aldizkaria 40-41.or., kultur etxeko proiektua, Larraburukoa).

FUNDAZIOAREN SORRERA

Esan behar, orain arte eman diren pauso guztiak, ez dutela gaia alderdi guztietatik jorratu, nahiz eta orain artean aipatu ditugunak arrakasta izugarrikoak izan diren eta oso baikorrak. Azken ekintzen artean aipagarriena eta sorreratik jarrera ireki eta ikuspegi globala izan nahi dituen, Astigarragan SAGARDOAREN FUNDAZIOA sortzeko hartutako erabakia da.

Fundazio hau sortzeko lehen pausoak eman dira. Horrela, joan zen urtetik, 2000 urte hasieratik, herriko sagardogile, elkarte eta talde kulturelek eta Udalaren ordezkariak zenbait bilera egin dituzte. Azken hilabeteetan fundazio honen helburuak eta xehetasunak biltzeko lantalde bat aritu da lanean. Hauen erabakiz, Siadecori sagardoaren sustapenerako erakundearen sorrerarako diseinua gauzatzea eskatu zaió. Proposamen honek sagardogile gehienek, herriko taldeen eta udalaren onespina du.

Sagardo Fundazioaren helburu nagusienak hauek izango dira. Batetik, sagardoaren sustapenerako erakundea sortzea, bertako funtzionamendu eta ardurak zehaztuz, non talde bakoitzaren izaera propioa gordeko baita. Bigarren, herriko sagardogintzak berekin dituen jarduera sozioekonomiko eta soziokultural guztien organu jarraitzailea izatea, bertan izango diren aktibitate guztiak koordinatuz eta plangintza egoki bat burutuz eta hau gauzatu dadin saiaturaz, gestio organu gisa lan eginez, horretarako aurrekontu propioa ere izango duen. Eta hirugarren, herriko ekimenak eskualdeko gainerako herrietako ekimenen osagarri izan daitezkeen zaintzea.

Beraz sagardoa maitatzen dugun guztiak bateratzea eta adostea du helburua nagusi, denon artean egin dezakegun lana sendotu eta areagotzea, alegia. Azken finean, helburua da Astigarragak horrenbeste zor dion produktua "mimatzea" eta bere ospez baliatuz herriaren onurarako lan egitea, gure herriak Sagardoaren Bihotza izaten jarrai dezan.

